

**2007ko ekainaren 16an UDALBATZA ERATZEKO EGINDAKO BILKURAREN AKTA.**

---

Aiako udal korporazio berria eratzeko 2007ko ekainaren 16an, eguerdiko ordubatean honakoak bildu ziren Batzorde aretoan:

- 1.- Igor Iturain Iburguren jauna
- 2.- Maria Jesus Arruabarrena Esnaola anderea
- 3.-Ander Arrillaga Albeniz jauna
- 4.- Joxe Mari Lizarralde Eizagirre jauna
- 5.- Mari Karmen Egurza Agirre anderea
- 6.- Naiara Esnal Huegun anderea
- 7.- Maitane Arrillaga Aldalur anderea
- 8.- Antxon Gomez Lorente jauna
- 9.- Bittor Sanchez Mendizabal jauna.

Idazkari-kontuhartzaile gisa Itziar Azurtza-Sorrondegi anderea jardun zen.

**LEHENIK.-** Idazkariak udaletxeak bankuetan zituen balore zein diruzko izakin eta ondare inbentarioa banatu zituen eta aipatutakoei oharririk bazuten galdegin zien, inork ez zuelarik deus adierazi.

**BIGARRENIK.-** Adin Mahaiak eratu zen, hautetsien artean adinduenak- alegia, Maria Jesus Arruabarrena Esnaola andereak- eta gazteenak -hau da, Naiara Esnal Huegun andereak- osatuz. Adin Mahaiak aurkeztutako hautetsien egiaztapen agiriak jaso zituen eta banan bana egiaztatu zituen lehenago aipatutako pertsonen nortasuna.

Ondoren, zinegotziak Adin Mahaiaren aurrean karguaz jabetu ziren, herriaren aurrean zinegotzi karguaren zereginak zintzo eta leialtasunez beteko zituztela aginduz. Eta horrenbestez, Korporazioa eratutzat jo zen, zinegotzien erabateko gehiengoz.

**HIRUGARRENIK.-** Alkatea izendatze prozesuari ekin zitzaion. Horretarako, Alkate gaien proposamena jaso zuen Idazkariak, zerrenda-buruak izan zitezkelarik alkategai. Batetik, EAJ-ren izenean, Igor Iturain Ibarguren jauna eta bestetik, “E.A.E.-A.N.V.-Aiako Udal taldea”-ren izenean, Maitane Arrillaga Aldalur anderea.

Jarraian, bozketa burutu zen, aurkeztutako alkategaien artean. Iturain jaunak sei bozka jaso zituen eta Arrillaga andereak, berriz, hiru.

Idazkariak adierazi zuen zinegotzien legezko kopurutik gehiengoa lortzen zuen alkategaiaren aldekoa izango zela aukeraketa, alegia, bederatzitik bost bozka eskuratzen zituena eta beraz, emaitzak ikusirik, Igor Iturain Ibarguren jauna izan zela Alkate izendatua, bederatzitik sei bozka jaso bait zituen.

Azkenik, Iturain Ibarguren jauna Alkate karguaz jabetu zen, herriaren aurrean, alkate karguaren zereginak zintzo eta leialtasunez beteko zituela aginduz.

**LAUGARRENIK.-** Udalbatzari ordubata t´erdietan amaiera eman zitzaion.

Baina, aurretik, Gomez jaunak, “ E.A.E.-A.N.V.-Aiako udal taldea”-ren izenean, lehenengoz, salatu nahi izan zuen 13 herritarrek egindako zerrenda legez-kanporatzea, eskubide zibil-politikoak ezabatu ezezik partaidetza politiko normalizatua ezinezko gertatu zelako eta bigarrenegoz, Aia herriaren alde lan egiteko prest zeudela baieztatu zuen.

Bere aldetik, Iturain Alkate izendatu berriak, eskerrak eman zizkien bere alde botoa eman zuten herritarrei eta oposizioarekin Aia herriaren alde lan egiteko ateak irekita zituela adierazi zuen, lehenengo garaietan izandako harreman onak berreskuratuz elkarlanean aritzeko.

Aurreko bi orrialdetan adierazitakoarekin bat datozela jaso asmoz, izenpetu dute, Aian, 2007ko uztailaren 10an:

IGOR ITURAIN IBARGUREN

M. JESUS ARRUABARRENA

ANDER ARRILLAGA

J. MARI LIZARRALDE

NAIARA ESNAL HUEGUN

MARI KARMEN EGURZA

ANTXON GOMEZ

MAITANE ARRILLAGA

BITTOR SANCHEZ

